

## Gurasoengandik seme-alabengana

Sinestezina badirudi ere, Vicente Atxa Mondragon Unibertsitateko errektorea da irudian ageri dena, erdi ezkutuan, bizkarra emanda, esku artean aizkora bat duela. Eta Pilar Alberdi, bere amaginarreba, istorio honen eragile nagusia da, bere seme-alabei eta suhiei "presioa" sartu diena familiaren ondarea alde batera utz ez dezaten. **Oñatiko Miguelena baserriko pinudi eta lurrak ez ditu abandonaturik ikusi nahi Pilarrek.**



Etxean Bixen esaten diote Vicente Atxa jaunari. Pinuei buruz ezer ez jakitetik, asteburuetan botak janztera pasa da Bixen azkenaldian eta baserriko pinudien kudeaketa bere gain hartu du koinatuekin batera. Laguntzarik gabe, ezinezkoa izango zela ziurtatu du. "Giltzarria zera izan da, amak pinudia zaindu behar delako bizipena helarazi digula, kontzientzia hori sartu digula; **uste dut presioa egiten digun belaunaldi bat mantentzea giltzarria dela, hori gabe, ziurrenik, bertan behera utziko genukeelako**", esan du Bixenek, baserriko seme-alaben izenean. Guztiek dituzte beren lanak, landetatik urrun.

Pillarrek seme bat eta bi alaba ditu. Bixen azken hauetako batekin ezkondata dago. "Nik pinuei buruz nekien gauza bakarra da, hamar edo hamabi urterekin, behin gure gurasoekin mendira joan ginela lursail batzuk banatzera, baina guretzat ia txango bat bezalakoa izan zen", dio. Aitagarrebaren txofer lanak ere egin zituela aitortzen du, Bergarako nekazaritzara eramateko. Baina ezer gutxi gehiago.

"**Aitaren kezka beti zegoen hor: ni egongo ez naizenean, zer gertatuko da gure lurrekin?**, esan ohi zuen". Bixenek gogoan du hori. Behin, koinatuekin elkartu eta elkarrekin aitari lagundu zioten lurrak markatzera eta mugarriak jartzera. Argazki batzuk ere atera zituzten bidegurutzeren batean, etorkizunean bidea gogoratzeko asmoz, baina hala eta guztiz ere, denbora igarotzen zenean, "ez genekien ez iristen, ezta gure lurrak zeintzuk ziren ere; eta hori gertatzen zitzaigun, berak gauzak oso ondo jarri zituen arren", esan du.

Aita falta izan zenean, aldiz, "**ez genekien ezta zer genuen ere**; harik eta egun batean, Oñatiko pertsona batek amagarrebari zein pinudi bota behar genuen eta zein ez esan zion arte... Orduan esan genion elkarri koinatuok: bada, guk pixkat gehiago kontrolatu beharko dugu gai hau hemendik aurrera", aitortu du Bixen Atxak. Ezin dena amari utzi.

Era berean, "herentzia egin behar izateak, eskriturak eta lurrak begiratzeak eta banaketa orekatua izateko balorazioa egiteak lagundu" zien lurren inguruan ardura hartzen. Aitarekin batzuetan lurrak bisitatu izanak ere baldintzatu zituen, baina batez ere, Pilarren ahaleginak eragin zien. Lurrak abandonaturik ez zituen ikusi nahi etxeko amak eta ondo estutu zituen gazteak hori ekiditeko. "Aurreko belaunaldiaren presioak hor jarraitzen du, eta balio hori ematen dio: **bizitzan zehar seme-alabentzat egin duten guztia baloratzea eskatzen dizute, ez abandonatzea**", dio Atxak.

Eta presio horrek eragina izan zuen. Hiru hilabetez, asteburuetan geratzen hasi ziren koinatuak pinudiak bisitatzen joateko eta mugarriak non zeuden jakiteko. Inausketak edo entresakak noiz egin behar zituzten jakin nahi izan zuten ere, eta horren berri zuen norbaitekin harremanetan jarri ziren. Bere baso-bataioa izan zen. "Mendiekin izan nuen lehen kontaktu horrekin batera, banuen nire lau anaiekin beste lursail bat, baina nik mendiei buruz ezer gutxi banekien, pentsa beste hirurak...", azaldu du Bixenek.

Pillarrek insistitzen jarraitu zuen, badaezpada, hasierako ahaleginak ezertan gera ez zitezen eta horrek laguntza bila joatera bultzatu zituen seme-alabak: "Aitari mendiak garbitzen lagundu zion gizon batekin jarri ginen harremanetan, eta hark ondo ezagutzen zituen lurrak; beraz, haiek zeharkatu eta GPS estandar batekin markatu genituen. Pinuek zer adin zuten ere jakin genuen,

Excel bat egin genuen, poligonoa zehaztu, lursaila, noiz landatu zen, zein zuhaitz mota zegoen ere bai... la guztia intsinis pinua zen, alertze batzuk ere tarteka, eta abandonatutako lursailen bate do beste era bai, non ezer sartu ez zen eta harriak baino ez zeuden".

Azkenaldian ere berriro suspertu direla esan du Bixenek: "Azken haizeteekin, bideren bat oztopatu dute gure pinuek, eta hor nire lehengusu Andoniren (elkarteko bazkidea da) laguntza izan dut". "Lurrak bisitatzan ari gara berriro, Wikiloc mendi-ibilien aplikazioarekin goaz, mugarren ibilbidea eta puntua gordetzen ditugu eta informazio hori hodeian gordetzen da", azaldu du Atxak.

"Amaren presioagatik ez balitz, basoa abandonatzeko erabakia errazena litzateke; esan daiteke, erabakia ez duzula zeuk hartzen, bakarrik etortzen zaizu, izan ere, oso zaila baita zeuk bakarrik, ezer jakin gabe, honi guztiari esku hartzea. Oso garrantzitsua da, halaber, basoaren inguruan dakiten lagunak izatea, edota Baso elkartera hurbiltzea. Gu ez ginen bazkide, baina beharrezkoa ikusten dugu orain, seguruak eta horiek guztiak edukitzeko ere. Bazkidetzeko bidean gaude. Izan ere, **laguntzarik ez baduzu, akaso duzun aukera bakarra lurrak abandonatzea baita**", azaldu du Vicente Atxak.



# GIPUZKOAKO

## BASO ELKARTEA

---

ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS  
FORESTALES DE GIPUZKOA